

IZENONDOAK

1. Irakurri arretaz beheko esaldiak, eta aukeratu ageri diren izenondoak.

- Datorren ikasturtean eskolako ikaslerik nagusienak izango gara.
- Niri ez zait arroz beltza gustatzen.
- Bihar eguraldi ona egingo du?
- Mikele eta Laia oso argiak dira.
- Ondo iruditzen al zaizu txokolate beroa prestatzea?
- Nire ohearen koltxoia oso biguna da.
- Aitak praka gorriak ekarri dizkio amari.
- Basoko haritza oso sendoa eta gogorra da.
- Gau ilunetan, izarrei begira egoten naiz.
- Atzo bazkari ederra egin genuen; bikaina izan zen postrea!

2. Irakurri arretaz beheko esaldiak. Markatu ageri diren graduatzaileak.

- Igerileku berria nahiko handia da.
- Nekane txikiaren begiak urdin-urdinak dira.
- Getariako hondartza asko gustatzen zait.
- Anaia-arreben artean, ni naiz neskarik nagusiena.
- Finlandiako neguak hotzegiak dira.
- Eneritz ilehoria da.

3. Osatu esaldiak, parentesi arteko graduatzaileen artean aukera eginda.

- Jokinen zaldia (**oso/samar**) azkarra da, Iraiarena baino (**azkarra/azkarragoa**);
hala ere, ez da lasterketako (**azkarragoa/azkarrena**).
- Aitonaren astoa zahar-(**zaharra/zaharregia**) da, (**zaharrena/zaharregia**) lanean
aritzeko.
- Gorka (**guztiz/samar**) trebea da eskulanak egiten: oihal-estalki ederrak egiten
ditu.
- Jertse hau mehe (**oso/samarra**) da sasoi honetarako.